

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Sistema honen bidez erakundeak bezeroekin dituen harremanen informazio guztia biltzeko eta kudeatzeko aukera ematen dute. Gure kasuan, bezeroak erakartzeko salmenten lehenengo hilabetean, estutxe bat oparituko dugu motxilarekin. Gure web orrialdetik salduko ditugu gure motxilak, hau da, zerbitzu automatizatu bat izango da. Gure bezeroak babestuta sentitzen direlako garatzen ditugu produktu berritzaileak. Baita ere, gure bezeroarekin harreman estua eta sendoa izan ahal dugu, zeren eta, gure orrialdean bezeroak galderak egin ahal dizkigute edo produktua egoera onean iritsi zaien ala ez.